HADE
Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Kodea:

# 2. maila (B2) | Azterketa idatzia

| | |
|---|---|
| Deiturak: | ................................................ |
| Izena: | ................................................ |
| NA: | .............................. |

| | Ariketa | Puntuazioa, gutxienez | Puntuazioa, gehienez | Denbora |
|---|---|---|---|---|
| Azterketa idatzia | Idazmena | 15 | 30 | 75 min |

Azterketa idatzia

HADE

2012ko lehen deialdia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# Idazmena

## Egitekoa

Jarraian proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu, eta ondoren garatu eskatzen zaizuna kontuan hartuz.

## Oharrak:

- Idazteko boligrafoa erabili.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 200 hitz idatzi behar dituzu.** Idazlana egiteko **75 minutu dituzu.**
- Zure idazlana zuzentzean arlo hauek hartuko dira kontuan:
  - eskatutakoari erantzun diozun
  - testu egokia osatu duzun
  - euskara egokia, zuzena eta aberatsa erabili duzun.

---

**Zirriborroetarako orria**
**(orri hau ez da zuzenduko)**

Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik **bat**:

## 1. gaia: Gero eta istilu gehiago eskola-kirolean. Erruduna nor?

### Egoera:




Eskola-kirolean sortutako istiluei buruzko berriak gero eta ohikoagoak dira egunkarietan. Eskola bateko partaide zarenez, eta gaiak kezkatzen zaituenez, zeure iritzia plazaratu nahi duzu.

### Egitekoa:

Herriko ikastetxearen hilabetekarira **iritzia** bidaliko duzu, eta, horretarako:

- Konta ezazu duela gutxi eskola-kirolean ikusitako egoera istilutsuren bat.
- Arrazoitu zergatik sortzen diren, zure ustez, horrelako egoerak.
- Proposa ezazu horrelako egoerak saihesteko neurriren bat.



Egitekoari erantzuteko, **nahi izanez gero**, ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

• Umeen arteko lehiakortasuna.
• Umeek jasotzen dituzten ereduak.
• Gurasoen jarrera.

## 2. gaia: Hiria etsai bihurtzen denean

### Egoera:



Udalak kultur etxe berria egiteko asmoa du, baina aurkeztu duen proiektuan ez ditu zaindu ezinduei dagozkien eskubideak. Udalaren ustez, ekonomiaren aldetik ezinezkoa da.

### Egitekoa:

Herriko aldizkarira **zure iritzia** bidaliko duzu, eta, horretarako:

- Azaldu nolakoa den zure herria ezinduen mugikortasunari begira.
- Adierazi zure ustez merezi duen kultur etxea baldintza horietan egitea.
- Proposa ezazu irtenbideren bat.



Egitekoari erantzuteko, **nahi izanez gero**, ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

• Ezgaituen eskubideak.
• Udalaren aurrekontua.
• Herritarron erantzukizuna.

**Gaia:**

Hemen ez idatzi

# HADE IDAZMENAREN KALIFIKAZIO-FITXA

Deialdia **2012/1**

**Kodea:**

**Maila:** 2

| **Idazmena** | Puntuazioa: gehienez, 30 gainditzeko, 15 | EMAITZA |
|---|---|---|

1. aztertzailea: ____ *sinadura* ..........

***Birzuzenketa dagoenean***

*Azken emaitza* ____

2. aztertzailea: ____ *sinadura* ..........

## IDAZMENERAKO IRIZPIDEAK

| | Oso eskasa | Eskasa | Nahikoa | Ona | Oso ona | | birz. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Egokitasuna (%13)**<br>Lotzen zaie testua eskatutako gaiari, solaskideari eta xedeari? Lotzen zaie tonua solaskideen harreman-motari eta xedeari? Badaki lexikoa modalizatzen? | 0 | 1 | 2 | 3 | 4 | | |
| **Koherentzia (%24)**<br>Ideia nagusiek eta lagungarriek era logikoan eusten diote elkarri? Diskurtsoaren egitura eta horren garapena hurrenkera logikoan daude eginda? Ideia horiek osotasun jakin bati erantzuten diote? | 0 | 2 | 3,5 | 5,5 | 7 | | |
| **Kohesioa (%17)**<br>Era eraginkorrean erabiltzen ditu testu-antolatzaileak, esaldien, paragrafoen eta testu osoaren arteko lotura egiteko? Badaki baliatzen puntuazio-sistema? Erabiltzen ditu kate anaforikoak (erreferentziak, ordezkapenak, elipsiak...)? | 0 | 1 | 2,5 | 4 | 5 | | |
| **Aberastasuna (%20)**<br>Hizkuntz baliabide ugari eta askotarikoak erabiltzen ditu? Esaldi landuak eta horien baliokideak baliatzen ditu? Baliabide du ordezkapen lexikala (sinonimia, antonimia…)? | 0 | 1,5 | 3 | 4,5 | 6 | | |
| **Zuzentasuna (%26)**<br>Gramatikaren arauak errespetatzen ditu (ortografia, deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia...)? Gaiari loturiko lexikoa menperatzen du? | 0 | 2 | 4 | 6 | 8 | | |
| | | | | OROTARA | | | |

### Zuzenketa-oharrak

..........

*Atzeko aldean jarrai dezakezu....*

### Birzuzenketa-oharrak

..........

*Atzeko aldean jarrai dezakezu....*